

**Sagardo botilaratuaren saltzaile nagusia**

**EROSKI-K IRAGARTZEN DU ERKIDEGOKO  
MILIOI BAT LITRO SAGARDO NATURAL  
EROSIKO DUELA 2020KO UZTAKOA**

- Asmoa da 2020an saldutakoa baino (2019ko uztarena) %15 gehiago saltzea; iaz, 930.642 litro saldu zituen EROSKI, Euskal Autonomia Erkidegoko Banaketa Handiak saldutako sagardo botilaratuen erdia
- EROSKI EAEko hogeit hamar bat sagardo etxerekin egiten du lana, eta Euskal Sagardoa eta Gorenak ziurtagiria duten 38 erreferentzia saltzen ditu
- 2017an, Euskal Sagardoa zigiluarekin egiaztatua dagoen kalitatezko sagardo bati bere marka jarri dion lehenengo banaketa katea izan da kooperatiba

**Elorrio (Bizkaia), 2021eko otsailaren 3a.** - [EROSKI](#)ren asmoa da botilaratutako sagardo naturalaren milioi bat litro baino gehiago erostea 2020ko uztakoa, zeina udaberri aldera iritsiko baita dendetara. Kopuruei begiratuta, Euskal Autonomia Erkidegoko sagardo naturalaren saltzaile printzipala da, bai Euskal Sagardoa jatorri izenarena eta bai Gorenak zigiluarena. Iragarri duenez, 2021ean iaz baino %15 gehiago saldu asmo du. Ia milioi bat litro saldu zituen (930.642 litro); hala, EAEko banaketa kanalean saldutakoaren bi botilatatik bat EROSKIren saltegiren batean saldu zen.

Kooperatibak EAEko hogeit hamar bat etxerekin dihardu, Euskal Sagardoa eta Gorenak zigiluen 38 bat erreferentzia komertzializatzen, bere marka barne. Gero eta indar handiagoz ari da, gainera, hemengo ekoizpen ehunaren aniztasunaren alde.

*"Euskal Sagardoarekin dihardugu 2016an sortu zenetik. Erakunde horrek sagardoa prestigiatzeko lan egiten du, eta elkarrekin berrikuntzak lantzen goaz arlo horretan dela formatu berriekin eta dela premia berriekin, ohiko merkatuen alternatibak bilatzeko estrategian sagardo naturala balioan jartzeko", adierazi du EROSKIren Tokiko Produktuen zuzendari komertzialak, Asun Bastidak.*

*"Euskal Sagardoa JIa daraman sagardoa bertako sagarrekin bakarrik egiten da. Sagarraren ekoizpena profesionalizatzen ari dira pixkanaka, sagarrak ahalik eta kalitate onenekoak eta uztak orekatuak izan daitezen eta, era berean, Euskal Sagardoaren kalitatea berma dadin. Horrekin batean, EROSKI bera, banatzailea den*

---

**EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA**

**CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



*aldetik, funtsezkoa da sagardoaren sektorearen etorkizuna bermatzeko", azaldu du Euskal Sagardoa Jatorri Izenaren gerenteak, Unai Agirrek.*

### **Aintzindaria izan da zigilua bere markari txertatzen**

2017an, Euskal Sagardoa zigiluarekin egiaztatua dagoen kalitatezko sagardo bati bere marka jartzen dion lehenengo banaketa katea izan zen kooperatiba. Ekimen horrekin, EROSKIk beste pauso bat eman du euskal ekoizpen ehunaren aniztasunaren alde. *"Iruditzen zaigu funtsezko elementua dela gure inguruko ekonomia, kultura eta paisaia laguntzeko eta horien iraunkortasuna bermatzeko. [Osasunaren eta Iraunkortasunaren arloan hartua dugun konpromisoak](#) garmatza ingurunearen garapen sozial eta ekonomikoa bultzatzera, eta, orobat, enplegua eta tokian tokiko aberastasuna sustatzera eta kultura gastronomikoa errespetatzera. Apustu hori aurrera eramateko garaian, EROSKIk laguntza eta hurbiltasuna eskaintzen die nekazaritzako produktuak hornitzeaz arduratzen diren tokiko eragileei, eta eskaintza zabal eta askotarikoa egiteko erabakia hartu du; ondorioz, tokiko 2.000 ekoizle txikiren 20.000 produktu baino gehiago eskaintzen ditu", azaldu Tokiko Produktuetarako zuzendari komertzialak.*

---

#### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

#### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)